

Ikasle Abertzaleak antolakundeak manifestazio nazionalerako deialdia egin du, **Arrasaten, otsailaren 22an, osteguna, eguerdiko 12:30etan Laubide plazatik** hasita, Arizmendik ikasleen eskubide politikoekiko erakusten duen axolagabekeria eta mespretxua ozen salatzeke.

Hilabete askotan, IA-k borroka egin du Arizmendik gaur egun daukan greba araudi onartezina aldatu dezan. Araudi hori baliatuta, grebak sistematikoki boikoteatu izan dira; izan ere, **%25eko desbinkulazioa** lortuz gero, greba ez da irteten, nahiz eta gainerako %75ak aldeko botoa eman. Egoera hori probokatzeko, atzeratu ezin omen diren azterketak jartzen dituzte greba egunetan, xantai gisa. Horrela, Arizmendi **LOMCE** bezalako lege erreakzionarioekin lerrokatzen da praktikan, eta ikasleei aldarrikapenerako aukerak ixten diete, nahiz eta gero, hipokresiaz, LOMCEren aurkako sermoiak ematen dituzten. Une honetan, Arizmendi kapitalismoaren sisteman guztiz txertatutako hezkuntzaren tresna bat gehiago da, nahiago duena burgesia erreakzionarioaren legeak isilik betetzea, eta euren ikasleak artalde isil eta konformistak izatea, euren artean ikasle militante eta kontzientziatuak egotea baino.

Dena dela, Arizmendik, bilera batean, otsailaren 1ean, **hitza eman zion** IAko ordezkari bati, greba araudia aldatuko zela, 3 hilabeteko epean, euren tramiteak bete eta gero. IAk, oso kontuan hartu zuen bertan hitzemandakoa. Baina azken asteotan egitekoak ziren urratsak (gela-ordezkariekin bilerak, greba araudiaren aldaketen berri emateko) egin ez dituztela ikusita, eta hiru hilabeteko epea ikasturte bukaerara gehiegi hurbiltzen hari dela ikusita, beste urrats bat emango du manifestazio nazionalaren bidez.

Hau ez da ikasle batzuen kapritxoa. Hau **ikasle iraultzaileen ahalduntze ariketa bat da**. Ez dugu onartzen grebarako eskubide

errealik ez izatea, eta **ez dugu negoziatuko** justiziaz dagokigun ezer. **Gure eskariak** argiak dira:

- %25eko desbinkulazioaren puntua desagertzea
- Paroak egin ahal izatea grebako baldintza berdinekin
- 4.DBH-ko ikaskideak parorako eta grebarako eskubidea lortzea
- Greba egunak azterketa egun batekin bat eginez gero azterketa atzeratzeko eskubidea
- IA-ko militanteek askatasunez egin ahal izatea euren lan politikoa ikastetxean(aurkezpenak, bilerak...)

Horrez gain, ez dugu onartuko luzamendurik Arizmendik hartzen dituen konpromisoetan. Gure eskariak serio hartu arte eta **aipatutako gutxieneko puntuak ofizialki onartu arte** eta ikasleei zuzenean hala jakinarazi arte protesta eta mobilizazioek jarraituko dute. Ez dugu aitzakiarik onartzen: **gurasoek ez dute zeresanik hemen**, egoera hau ikasleen eskubideen urraketa bat da eta hori zuzendaritzak konpondu behar du, berehalakoan.

Amaitzeko, **ez dugu inola ere onartuko IAko militanteekiko inolako jazarpenik edo presiorik**. Zentsu horretan salatu nahi dugu, IAren jardun politikoa oztopatzeko saiakerak izan direla, nagusiki, IAko taldearen aurkezpena egitea galaraztea hortarako gurasoen idatzizko baimena exijituz, non seme-alaben militantzia ontzat eman behar zen. Gu prest gaude, burgesiaren edozein tresnaren kontra borroka egiteko, gurasoen baimenarekin edo baimenik gabe.

Noski, gure aldarrikapenak ontzat eman zituztenean, eskertu egin genuen mugimendu hura, baina konpromisoak atzeratu izanak mesfidantza sortu du eta mobilizazioak aktibatzerantz eraman gaitu. Espero dugu aurrerantzean hitzartutakoa zintzotasunez eta zorroztasunez bete dadi abisua izatea hau.

Besterik gabe, **otsailaren 22an** ikusiko dugu elkar **Euskal Herri osoko ikasleekin bat eginik**; justiziaz dagozkigun eskubideak aldarrizkatzeko Arrasateko kaleetan.

IKASLE BORROKAZ, LORTUKO DUGU!

JO TA KE, SOZIALISMOA ERAIKI ARTE!